

## EGONKORTASUNA LANDU DEZAGUN

Beste egia batzuk egon daitezkeela eragozpenik gabe onartuagatik, niretzat zalantzarik ñimiñoena ere ez da: bakeaz gain, bikote bakarra eta egonkorra behar dugu. Tira, nerabezaroan zein postnerabezaroan ez zait iruditzen hain zurruna izatea derrigorrezkoa denik, horiexek baitira, ahal dela, bilatu, ezagutu, ikusi, esperimentatu eta erkatzeko garaiak, besteak beste. Zer atsegin zaizun eta noraino irits zaitezkeen nola jakingo duzu, bada, konparatu gabe? (Ohaide bakarra bizitza osoan, brrrr! Ez, txo, hori ere ez da). Dena den, ni hogeita hamar urteen muga psikologikoa gainditu berria naiz (mari-purtzilen batek esan dezakeenaz bestalde, fisikoki apenas antzematen zaidan arren); hots, bizi ditut garai horiek, eta iraganean utzi. Baike, asko samar ikerturikoa naiz, eta ibilian-ibilian eskarmentu apurra pilatu dudala daitort: honezkero ezagun dut lorerik lore ibiltzeak zer kalte dakartzan. Ez dut ukatuko, ezta pentsatu ere, une atseginak eta atseginak baino gehiago daudela, eta hainbat egoeratan morbo mugagabea sentitzen dela, eta larruak eutsi ezinezko moduan erantzuten duela espezimen gaituenekin; eta zein pizgarria den aldiro usain ezberdinak aditzea, bakoitzaren teknika eta modu sotilki ezberdinekin gozatzea eta nireekin uztartzea, eta abar, eta aski. Baietz, hasieran dena txinparta eta su artifiziaia izan daitekeela, baina derradan hautu kontzientea garaiz egin ezean azkenerako ez zarela lorerik lore ibiliko, baizik eta zulorik zulo, ñabardura gordinki adieraztearren. Eta epe luzean horrek ez zaitu betetzen, nire premia guztiak ez ditu ase behintzat. Honen inguruan urteetan hausnartu ondoren, eta zer edo zer ikusi eta ikasi dudalarik nik baieztatu dezaket, onena, emozionalki osasungarriena, frustrazio gutxien eragiten duena da pertsona bat aukeratu eta harekin geratzea. Zin dagit (eta saihestu ditzakezun infekzioen kontua ere ezin ahantzi).

Zakilixuti harkor zegoela dagoeneko esnaberritan igarri nion, baina bulegotik irten eta etxeratu aurretiko ohiko maskuri-hustualdia egin arte ez nuen egitate hori ganoraz eta gutxieneko patxadaz egiaztatu ahal izan (ai, soldatapeko garenon presak!). Bistara neukana, azkenaldiko egunetan ez bezala, ez zen kakahuetearen tankerakoa, ez eta “uzkurdura” hitza irudi batez definitzeko adibide ezin aproposagoa, zimurrez betea. Nahiz eta ordura arte inolako estimulu gehigarririk jaso ez, ez bisualik ez mentalik, arruntean baino lodixkago zegoen, are urrintsuago, eta haztatua izateko gogoz. Azken tantatxoak jausiarazi, eta esku gainarekin emeki-emeki egin nion laztan. Bizpahiru hatzez heldu eta altxarazi nuen, sabelaren beheko aldera eraman eta bere epela nabaritzuz, azala azalaren kontra. Eta kitto, oratzeari utzi nion arren, zegoeneko ez zuen hatzek eutsi zezaten behar zutik irauteko. Nerabezaroan legez, pare bat ukitu aski izan ziren Zakilixut adiskide zaharra edozertarako gertu uzteko. Hara, sasoiko jaikia nintzen, dena delakoagatik.

Beste guztia ere bai, baina alderdi emozionala bereziki zaindu beharrekoa da harremanaren

esperientzia biribila gerta dadin. Benetako emozioa behar du izan, hala ere, bestelakoan ez du merezi. Egonkortasun hutsa ez baita ezeren berme, esan gabe doa: ez dago zertan edonorekin etsi, kaletik oinez ikusten duzun aurrenekoarekin etsi, baiezkoa ematen dizun lehenarekin; ez duzu zertan edozein egoera eramangaitz jasan, egonkortasunaren izenean. Pertsona egokiarekin etsitzea, hor dago koxka: egiaz atsegin duzun eta egiaz komeni zaizun laguna zor diozu zeure buruari. Lagun hori aukeratzen da betiere pertsonaren aurpegi guztiei erreparatuta, noski, ez azalekoei soilik, eta lehen bihotzondoko itsuekin mesfidati jokatzuz. Hauek kontuan harturik, oinarriok abiapuntutzat harturik, ba... Hara, erabiliaren erabiliaz dagoeneko zer adiera duen ere aspalditik ez dakigun hitz potolo higatua baztertuko dut, emez hasten den hori hain zuzen, sinesgarritasuna osoki ez galtzearren; nork bere etiketak jar ditzala, nahi duen moduan dei diezaiola erakarpen fisikoaz gaindi dagoen zirrara bortitz (edo ez) horri. Baina gauzak diren moduan: badaude lehen edo bigarren ikustaldia igaro ostean ere bestela begiratzen ditugunak, bada txera berezia eragiten digunik, ohetik kanpo ere asaldatzen gaituenik. Hark emango digu bizipoza. Aipatzerakoan BERA izendatzen dugun hark.

Arratsaldean, metalezko estatua abstraktuaren gerizpean nintzen, zutik: eguzkiaren joa zela medio, haren harrizko oinarria beroegi zegoen bertan jesarri ahal izateko. Patrika estutik telefonoa atera baino erauzi egin nuen, eta jakin hiru minutu neramala zain. Beste patrikatik klinex bat eskuratu, destolestu, eta ezpain gain, kokots eta bekainen izerdia xukatzen aritu nintzen, arrazoi estetikoengatik. Ondoren, hurbileko parkearen zuhaitzei so egin nien: ez ziren mugitzen, eta auzoko paisaia ezagun nuen lehendik ere. Atzerapena dagoeneko bost minutukoa zen. Kortesiazo bost minutuak. Azalpen eske deitzera nindoan unean berean ikusi nuen oinez etortzen. Eta buruarekin agur-keinua egiten.

—Zer moduz.

—Ondo, ondo. Eta zu.

—Jon zara, noski.

—Eta zu Roberto. *Camean* ez zirudien hain altua zinenik.

—Barkatu, e? Saiatu naiz orduan iristen, baina azkenean apur bat berandu nator.

—Bai, lasai, ez da presarik. Ikusten dut saiatu zarela -leundu nuen auzia, gizonaren izerdiak aintzat hartuta.

—Goazen? Atzealdeako bloke hartan bizi naiz. Berehala gaude.

Bere etxera bidean, edari makinaren alboan geldialdia egin genuen, hark kolazko freskagarria eskura zezan (klunk!). Ireki aurretik, potoa garondan pausatu zuen instant batez, bertan arrasto hezea utzi ziolarik. Gero, eta edukia segur aski oso hotza egongo zen arren, antsiatsu eta kontu gabe ekin zion edateari, hurrupa bakarrean ia, zintzur sagarra gora eta behera, irenstean

zaratatsu; eztarrian min hartzea ez zitzaion ardura, antza.

—Azken tragoa nahi? -eskaini zidan.

—Ez, eskerrik asko. Nahiago dut Pepsi -atera zitzaidan. Eta ateratzearekin bat damutu nintzen, txorakeriak esateagatik.

—Bo.

Bere soan ere nahasmendu arin bat antzeman zitekeen, eta ez nuen bigarren aukerarik eduki: burua atzeraka makurtu eta freskagarriarenak egin zituen. Potoa esku bakarrez birrindu zezakeela erakutsi zidan, hatz lodi indartsuak izaki. Apuntatzeko saskibaloj jokalaria baten eskumutur-mugimendua antzeratu ostean, lehen jaurtiketan asmatu zuen hondakina zakarrontzian sartzen.

—Zertan zabilta beharrean? -galdetu nion, adeitasunari eustearren.

—Irakasle, filosofia irakasle nabil.

Hark ez zeukan inongo jakin-minik, eta ez zuen deus ere galdetu. Ni ere isilik geratu nintzen, bere ibilera luzearen erritmo azkarra ahal bezala jarraituz. Eta begietsiz: ipurdi onargarria.

Bada, bai, nik aurkitu dut BERA, zorionez. Edonorentzat legez, ez da gorabeherarik gabeko bilaketa izan, ez baitira gutxi aurretik hartu ditudan desengainuak, ez eta jasotako mota guztietako kaskarrekoak. Baina akabo, topatu dut, zinez, eta azkenik iragarri dezaket. Denboratxo bat badaramagu elkarrekin, bi hilabete joan baitira hasi ginenetik; BERA eta ni, ni eta BERA: Mikel du izena. Ez hizkeran, ez gorputz-adierazmenean, ez itxuran; nire Mikeli “luma” ez zaio inon ere ageri, eta horrek erakarri ninduen lehen bistadizoan. Ezagutu ondoren, ordea, gizon-gizona dela ez ezik, sentikortasun punttua baduela ere ikusi nuen. Nire Mikel ez da inondik inora gauza oro fisikoan eta giharretako indarrean oinarritzen duen astakirten oldarkor horietako bat, badaki behar denean samurtasuna, begirunea edota enpatia azalarazten, proportzio egokian. Tira, ez nuke larde-jarioan gehiegi egon nahi: bukatuko dut aldarrikatuz gustuko dudala, izugarri, eta orain arte bata bestearekin ezin hobeto konpontzen ari garela.

Joan den astean iritsi zen lehen proba garrantzitsua gure erlazioarentzat. Oporretara abiatu zitzaidan, Sumatra aldera hain zuzen ere, eta hurrengo etapa dagoeneko ahaztu dut nora egin behar zuten. Elkar ezagutu genuenerako erosiak zituzten txartelak, hortaz ez zen eztabaidarako betarik egon bidaide unibertsitate sasoiko bi adiskide hartu zituelako, eta ez ni (haren buruan NI, pentsatu nahi dut). Egunotan arrastoa utzi didala berretsi da, nabari baitut bere hutsunea, uste baino gehiago gainera, eta oraindik beste lau aste emango ditu atzerrian. Denbora dezente, bai. Baina halakoxea da nire Mikel: abenturazalea, ausarta, bidaiazalea, muga berriak zeharkatzeko gertu betiere, paisaia eta kultura berrien egarri.

Hark zabaldu zuen etxeko atea. Nik itxi nuen.

—Komunera noa.

Itxoiten geratu beharrean, egongelan esate baterako, kasik barruraino lagundu nion. Komuneko atea bildua utzi zuelarik, zirrikitua nahikoa izan zen txiza zutik egiten zuela erdizka ikusi ahal izateko. Ponparen hotsa urrunekoa balitz bezala entzuten hastearekin bat sartu ginen sukaldera, bera gidari oraindik ere.

—Zer edo zer hartu nahi orain?

—Ez, eskerrik asko.

—Ziur?

Elastikoa erantzi zuen, aurrez aurre geundelarik. Hura xukadera bailitzan, besapeetatik behera erortzen zitzaizkion izerdi tanta bakanak lehortu zituen, segidan lepoaldea ere igurtziz. Ez zidan begirik kendu tartetxo horretan; nik berari ere ez. Ile beltz sarria zuen bularrean. Sorbalda zabalak. Sabelaren eta besoen giharrak gimnasioan landuak. Apendizitisetik operatu zutela salatzen zuen orbaina.

—Atsegin duzu? Ileadengatik diot.

Hitzez erantzun ez nion arren, bere bularraren gaineko iritziaren berri nire aurpegierak emango zion, argiro. Elastikoa lurrera jaurti, eta nire hanken aitzinean erori zen, kasualitatearen esku-hartze urriarekin. Begiradaz erronka jo zidan. Ez nion luzaroan eutsi: hurreratu nintzaion, ukitu nuen, musu ematen saiatu nintzen, eta huts egin. Bigarren ahaleginean ezpainak musukatu genizkion elkarri, hirugarren ahaleginean mingainek ere parte hartu zuten, sakonki arnastu genuen. Bere gorputzari izerdi usaina zerion, baina ez desatsegin gertatzerainokoa, tamaina kitzikagarrian baizik. Hozka ttikia egin nion lepoan, belarrian. Bultzaka aldendu nintzen nire tirantedun elastikoa eranzteko, txinalak kentzeko, eta so geratu nintzaion orduan. Galtzak berak ken ziezazkidan irrikatzen nengoen, eta gutizia sumatu ala ez horixe egin zuen, beharrik. Botoia askatu, kreailera behera, galtza motzak eta azpiko arropa zoruraino; zakila, irten nahian indarka zebilena, dagoeneko libro. Eta prest.

Berehala arduratu nintzen bere hankartekoa ere agerrarazteaz. Gaixoa galtzek zapaldua, preso, lekurik gabe egon zitekeen. Makurtzea otu zitzaidan, eta haren orbaina miazkatzea eta zilborra musukatzea eta hortik behera jarraitzea, eta egin nuen. Lehenik gerrikoaren oztopoa gaindituta, bi eskuekin galtzak jaitsi nizkion, bere zakilari ihesbidea erraztuz. Ez nirea adina, baina gogortzen hasia zela baieztatu nuen. Hura neureganatu orduko, mingainarekin zirkulu erdia marraztu nion prepuzio biluzarazi berrian. Aho barnean loditzen, gero eta espazio zabalagoa betetzen sentitu nuen. Apur bat aztoraturik, buruan ukitze emea egin behar izan zidan.

—Eez... ez... Hoorrela ez. Oraindik... ez -esan zuen totelka, gorputzaren mugimenduak hitzak bezain sinkopatuak.

Jaramon egin eta zutitu nintzen, trukean musu eta hozkadaren arteko hibridoa jaso nuen,

ezpain inguruetan listuz zikindu ninduen. Zirri egin genion elkarri, nik sabelpean batez ere, eta borrokatxoa burutu genuen, nor nagusituko zen hasieratik ezin hobeki genekien arren. Amore emandakoan, zangoak lurrean bermatu, eta sukaldeko mahaian etzan nuen gerritik gorakoa, gerripea bere zaintzapean utziz. Abagunea baliatu zuen hatzarekin nire zulotxoa esploratzen hasteko. Bat-batean zonaldea lantzeari utzi, eta bira eman zuen. Ni jarrera berberean geratu nintzen, zain-adi. Hondarreko igurtziak eman zizkion zakilari, nondik eskuratua zen ikusi ez nuen babesari ipini aurretik. Lasterrera, ipurmasailak eskuekin apur bat zabaldu zizkidan, eta hankak zertxobait gehiago bereizi nituen bata bestearengatik. Senez, begiak itxi nituen, nolabaiteko kezka ezin saihestuz, penetrazioaren uneak sorrarazten didan inpresioa aurreikusiz. Barruan labaindu orduko, baina, halakoak ahantzi nituen. Pilpiraka deika ari zitzaidan zakila ezker eskuaz heldu nuen, eskuinaz mahaiaren ertza hartuta. Ekin zion, arretarekin, behar bezala egokitu arte. Arretarik gabe, hori lortu zuenean. Bultzaldi bakoitzean aurrerantz mugiarazten ninduen ni, mugiarazten mahaia, mahai gaineko ur botila. Zorteko sentitzen ote nintzen jakin nahi izan zuen, eta saiatu nintzaion ozen erantzuten; hitzak osorik ahoskatu gabe ordea, ahoskatu ezinean. Azkenik, belarrira hurbildu zitzaidan, iletik oratuz, nire bizkarrean pausatua minutu bateko atsedenaldira.

—Orain zer, e? Gehiago nahi, oraindik?

Galdera erretorikoa zen, eta gainera ez zidan iruzkinik egiteko astirik eman. Sendoago berrekin zion, indarberrituta; nik arinago eragin nion zakilari, bere erritmoa jarraitze aldera. Atximurkatu zizkidan zegoeneko tontortuta nituen titiburuak, bultzaldiak gero eta indartsuago, azkarrago egin zituen, eta kontrolatu ez nuen besoaren mugimendu batek botila erorarazi zuen. Tapoia, mahaian biraka ibili ostean, lurrera jausi zen, baina plastikoaren zaratak ez zion gogoia desbideratu, ezta apurtxo bat ere. Hark bultzaka jarraitu zuen botilaren isuriak mahai gainean putzu ttikia eratu artean, astiro eta etenik gabe zabalduz zihoana, niregana iritsi zena, katuen moduan pare bat aldiz dastatu nuena, masaila busti zidana, ahoa. Bultzaka jarraitu zuen, garrasi sor batek ihes egin zidan, bi eskuekin heldu nion mahaiari, berriro egin nuen garrasi, entzungarriago. AAAA!: horrela.

Hark ez zuen askozaz gehiago iraun berean. Konplimendu likits zenbait aditu nizkion, ez sobera originalak, entzungai bere hatsankak soilik izan nituen arte.

Txukundu ostean, jantziak berreskuratu ostean, etxera bueltako bidea mantso, patxadatsu ibili dut. Dutzapean orgasmoaren onuren hondarrak baizik ez ditut sentitzeko, burua nolabait hutsik. Belarriak zein masailak artean ere gorri, dutxa ur hotzarekin bukatzea beharrezkoa izan da, haietan freskotasuna nabaritzearren. Ispilu aitzinean orraztearekin bat hasi naiz era kontzienteagoan pentsatzen. Afari aurrez prestatua mikrouhinean berotzen ipini, eta ordenagailua piztu dut, postontzi elektronikoa begiratzeko, Sumatratik igorritako hitzak irakurtzeko itzaropenean. Sumatratik edo.